



ZURE USTEZ, ZER ESKAINI DIO AMURIZAK BERTSOLARITZARI?

Xabier Amurizari buruz oraingo eta lehengo bertsolariek zer iritzi duten jakin asmoz, inkesta txiki bat egin dugu batzuen artean. Alde batetik, Amurizak bertsolaritzari zer ekarpen egin dizkion eta bestetik, bakoitzaren bertso moldean zer eragin izan duen jakin nahi izan dugu. Erantzunak, denetik, baina gehienek berrikuntza hitza azpimarratu dute:

Testua: Izaskun ELLAKURIAGA

Jon Azpillaga: Lehengo bertso eratik orain-go bertso modura eta egin diren berrikuntzen eragin dana berea izan da. Gero, beste batzuk bide horri jarraitu diote, baina hasiera berea izan da. Nik, Amuriza, Etxanon lehenengo meza berria eman zuenean eza-gutu nuen. Lopategi eta biok bertsotan izan ginen. Aurretik entzuna neukan bertsotan egiten zuen apaiz bat bazela. Orduan ere oraintxe bezalaxe egiten zuen bertsotan. Berrezko bertsolaria izan da. Gero, kartzelan egon zen sasoian, gehiago saiatu zen. Errima hiztegia egin zuen eta beste hainbat lan ere bai. Beren berrikuntzak, orain azaldu den zaletasun hau pizten lagundu zuen. Batez ere, eragina bertso eskoletan eta bertsolari gazteengan izan du. Oso aberatsa izan da berri-erantz.

Imanol Lazkano: Gauza asko, batipat berrikuntza bat. Horrekin batera bertso eskolei eman die, batez ere, indar izugarri bat berak egin dituen ikerketa horietatik. Amuriza heldu zen arte, badirudi, baserri garaiak izan zuela indarra, baserri giroko bertsolaritza bat izan zen. Eta gero, bertsolaritza urbanotzen edo hirira jeitsi egin denean pauso garrantzitsua izan da. Bertsolaritza urbanoagoa bihurtu du Amurizak. Nigan ere eragina izan du, bertsolaritza beti izan baita besteengandik jasotzen joan den elementu bat. Nik uste dut bertsolari guztioi erakutsi digula lehen baino urbanoagoak izaten.

Jon Mugartegi: Amurizaren eragina espe-txean egin zuen lan handiaren ondorioz etorri da. Bertsolari mota berri bat ekarri du bere lanak. Guk, era zaharreko bertsolariak garel-a esan daiteke eta guregan ez du eragin zuze-nik izan.

Aritz Lopategi: Berrikuntza handia eman dio bertsolaritzari. Alde batetik, bertso eskolen sorrerarako bidea jarri zuen. Eta bestetik, bertsozaleasuna baserri-erik kalera ekartzeko lan handia egin zuen. Niregan eragin zuze-nik ez du izan, baina ni ere bertso eskoletako bertsolaria naizenez, zeharka izan nezake eraginik.

Manolo Arozena: Gaurkotasuna eta berri-kuntza. Amuriza sartu zen arte bertsolaritza era batekoa izan da eta hortik aurrera beste era batekoa. Berrikuntza zentzu guztietan

izan da, bai jende gaztea plazaratzeko, bai doinutan, bai... gauza asko. Nik uste dut bertsolaritzaren historian kontatu beharko dela Amuriza arte eta Amuriza ostean. Amurizak nigan eragin handia izan du. Ni oso zaharrik hasi naiz bertsotan, 38 urterekin plazaratu nintzen. Eta seguraski, Xabier Amuriza ez bazen bertsolari egin egun baten, ni ere ez nintzake bertsolaria izango. Ni betidanik bertsozale amorratua izan arren, 80ko txapelketan Amurizak bertsolaritzari eman zion bultzadarengatik ez bazen izan, ez nintzate-keen gaur plazatan bertsotan izanen.

Jon Enbeita: Nere garaitik ikusi da bertsolaritzan eraberritze bat egon dela eta eraberritze horretan partehartu duenetako bat Xabier izan da. Bere errimen liburuak ondorenak izan ditu, doinu berezietan kantatzeko joerak ere bai,... Bere teoriak (bertsolaria ez da jaiotzen, bertsolaria egin egiten da) ere eragina izan du, bertso eskolen ugaltze eta indartzean batez ere. Hala ere, inguruan dagoen guztiak eragina izaten duela baztertu gabe, nik uste dut nire estiloa aintzinatik nahikoa markatua daukadala eta nire estiloa ez da Amurizarena. Baina horrek ez du esanahi bion artean zerikusirik ez dagoenik.

Kristina Mardaras: Bertsolaritzari estilo berr-i bat eskeini dio, estilo kultuago bat, prestigioa eman dio herri mailan eta suspertu egin du bertsolaritza, batez ere, bertso eskoletan izan duen eraginarengatik. Hala ere, bertso eskolak aipatzean ez ditut oraingoak aipatzen, hasierakoak, helduenak baizik: Almen eskola, Santutxukoa,... Bertso eskolek, gaur egun, Lopategi bitarteko jarraitzen dute. Baina hasiera baten, Amurizak egindako lana, material bilketa, plan orokor bat azken finean, eragin handikoa izan da. Niri ere Amurizak beste arlo batzuk ere egon badau-dela erakutsi dit. Nire bertso moldean, gaiak tratatzeko orduan Amuriza ispilu izan dut. Nik ez dut lortu berak lortu duen haizea, baina behintzat beste gai batzuk eta berritasun baten barruan tratatu behar direla adierazi dit.

Iratxe Ibarra: Nire ustez, Amurizak bertsolaritza modernotasunera bultzatu du. Gauza berriak, aldaketa garrantzitsuak eskeini dizkio bertsolaritzari. Bertsoa egiteko eran, tek-nikan azken finean eta orokorrean, bertsoa



ulertzeko orduan ere nabaria da Amurizaren ekarpena. Nire bertsokeran ere eragina izan du. Nik beharbada, gaur egungo gazteen bertso moldean kokatuko nuke nire burua. Baina Amurizak horiengan eragina izan duela uste dut. Beraz, zeharka niregan ere bai.

Rikardo Gonzalez de Durana: Nire ustez Xabier Amurizak bertsolaritzari baseritik hiritar mundura sartzea eskeini dio. Hortan isladatuko nuke Amurizaren ekarpena, gehien batean. Eta gu, Amurizaren arotik aurrera hasi ginela esan daiteke. Beraz, guregan ere eragina izan du, gu bere ondorengoak bikara.

Juan Mari Areitio: Amurizak bertsolaritzari indar berri bat eskeini dio. Indar berri eta handi bat. Bertsolaritzarentzat onuragarria izan den indarra. Nik ere Amurizarengandik zerbait ikusi dut. Inguruan dituzunengandik beti ikasten da zerbait eta Amurizarengandik zer esanik ez.

Manuel Lasarte: Komenigarria izan den berrikuntza bat eskeini dio. Lehengo bertsolarietatik ezberdina izan den egitura eta bertso moldea ekarri du. Baina aldaketa ez da kalterako izan, nahiz eta gure bertsokeratik ezberdinak izan. Nire ustez, Xabier Amuriza bertsolari handi bat da eta nire lagun ona.

Iñaki Murua: Amurizak Larramendik euskerarekin egin zuen berdina egin du bertsolaritzarekin. Larramendik ezagutzen den lehenengo euskal gramatikari buruzko liburua egin zuen eta, nik uste dut, Amurizak bertsolaritzaren gramatika egin duela. Orduan, lehen, esaten den bezala, Baserrik eta Uztapidek bertsolaritza sagardotegietatik antzokira atera bazuten, Amurizak eskolaratu egin du. Hau da, bertsoari beste maila bat eskaini dio, onespén maila zabalago bat. Kultur munduan itsatsiago jarri da eta horri esker beste itzal bat hartu duela uste dut. Beraz, berezko bertsozaletasun eta bertsolari tabu hori ere apurtu egin du Amurizak. Bertso eskolako bertsolariari onespén handia eman dio Amurizak. Bestetik, nire ustez Amurizaren ondoren Gipuzkoan izan zen belaunaldian berari esker gure bertsokera aurreratu egin da asko. Berak egindako lana aprobe txatu egin dugu, gure bertsotan, errima eta egitura aberastu eta ugaritzeko. Hortik aurrera, estiloa bakoitzak propioa dauka. Nire ustez, bertsolaritzan eztabaida bat sortu du eta horrek denok aberastea ekarri du.

Mikel Mendizabal: Xabierrek bertsolaritzari asko eskeini dio. Bertsolaritzari aire berri



ITURRI ON BAT SORTU DEZAKE
MENDIKO HARKAITZ ZORROTZAK,
LIBURU BATEK GORDE DITZAKE
GURE ALDERDI ARROTZAK,
EGUN SENTIAK BILUZTEN DITU
ILUNTASUNAREN LOTSAK,
NAHI BADITUZU BEGIAK ZABAL
ETA ASEBETE BIHOTZAK,
JAKITURIZKO ERRAINUETAN
ARGITUKO GAITU **HONTZAK**

MIKEL MENDIZABAL




Hontza
LIBURUDENDA

Okendo kalea, 4
Tel. 42 82 89 - Faxe: 43 12 56
20 004 DONOSTIA



bat ekarri dio, bide berri bat eman dio, hau da, norabide berri bat eman dio. 80ko hamarkadan bertsolaritzak norabide berri bat hartzen du eta horren eragile nagusia Xabier Amuriza izan da. Orduan hasi zen bertso eskolen mugimendu osoa gehien bat berari zor zaio eta bertso eskolen inguruan sortu diren ikas-material guztia, liburuak eta metodologiak ere gehien bat barari zor zaizkio. Azken finean, bertso eskolaren izpiritua Amurizak itsatsi zuen bertsolaritzaren munduan. Eta garai haietan asko burukatu zuen gainera. Berak garbi ikusten zuen, baina jende askok ez. Orduan berak borroka asko egin behar izan zuen eta azkenean garaile atera zen. Beraz, norabide eta izpiritu berri bat eskeini dio Xabierrek bertsolaritzari. Nigan ere Amurizak eragina izan du. Duela 15 bat urte ezagutzen dut Xabier. Ordurako gu bertsotan bagenbiltzan eta arnas berri bat ekarri zuela bertsolaritzara ikusi genuen. Eta ni konturatu nintzen berak esaten zituen zenbait gauzekin, erabiltzen zuen estiloarekin, bastante sintonizatzen nuela. Eta nire ustez, Amurizaren itzala garai

hartako bertsolari gazteongan eragin handia izan duela eta iturri horretatik denok edan dudula asko edo gutxi.

Arantzazu Loidi: Hitz baten esanda berrikuntza eskaini dio. Arte zaharrari jantzi berri bat eman dio. Berrikuntza arlo askotan ekarri du. Esaterako, teknika aldetik ekarpen esanguratsuak egin ditu, eskola bat sortu du, doinuak landu ditu, kantakera, gaia,... eta orokorrean bertsolaritzaren eta bertsolariaren ikuspuntua ere aldatu egin ditu. Bestetik, entzulego berria sortu du, txapelketari bira bat eman dio eta bizkaierari ere bertsolaritzan lekua eskeini diola uste dut. Beraz, labur esateko epe baten hasiera markatu zuen eta bide berriak ireki ditu eta irekitzen ari da oraindik ere. Nire ustez gauzak ondo pentsatuta, ondo hausnartuta, buelta bat baino gehiago emanda esateko joera gazteok izan dugu eta zer esanik ez, bertso eskoletatik pasatu garenok badaukagula arrasto bat eta zer eskertu bat hor egin duen lanari. Eta uste dut kutsu hori antzematen zaigula.